

S I N D I K A I H E Z I K E T A S A K O N D U Z

5.0  
orokorra

Argibesta eta eskusioaren aurka

6.


# Lanaren banaketa eta gizarte soldata


LAB  
Hezkuntza

Zbkia

51100011

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA






**6.**

**Lanaren banaketa  
eta gizarte soldata.**

6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

Idazlea : **Antxon Mendizabal** (UPV-ko irakaslea)

Argitarazle : **Ipar Hegoa Fundazioa**



**EUSKO JAURLARITZA**

JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN  
ETA GIZARTE SEGURANTZA ARLOA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

1998.eko Martxoa

6.

orokorra

## Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

**Lanaren banaketa eta gizarte soldata.**

**Lana eta enplegua.**

**Lana banatzeko arrazoiak.**

**Lana banatzearen aurkako arrazoiak.**

**Dinamika berriaren abantailak.**

**Lan-jardunaldiaren murrizketa eta soldataren konpentsazioa. Eztatubida teorikoa.**

Lanaldiaren murrizketa eta enpresen lehiakortasuna.  
Soldata-kompentsazioa (Husson eta Lipietz).  
Soldata-kompentsazio partzialerako aurki daitezkeen alternatibak.  
Lan-jardunaldia murriztera zuzendutako lege orokorra.

**Prozesuaren subjektu politikoak.**

**Lana banatzeko Europa mailan egin diren proposamenak.**

Europako Batasuna.  
Alemania.  
Frantziar Estaturia.  
Espainiar Estaturia.

**Lana banatzeko Hego Euskal Herrian egindako proposamen batzuk.**

**Proposamenak finantzatzeko era.**

Finantza-beharrak.  
Finantza-baliabideak.  
Balantzea.

**Komunitate-lana.**

**Metatze-dinamika berria.**

**Ondasunen banaketa eta askatasun proiektua.**

**Dinamika berriaren lurralde-esparrua.**

**Ondasunen banaketa eta garapen eredia.**

Eredu neoliberalaren aurkako gako soziala.  
Arazo ekologikoa.  
Merkantilismorik gabeko gizarte.  
Kultur iraultza.

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

Hego Euskal Herria galbidean dabil. Bere langabezia-tasa Europakoa baino bi aldiz handiagoa da (langabetu horietatik, gainera, %10ek baino ez dute laguntza sozialik jasotzen), gazteen eta emakumezkoen langabezia-tasak Europako Elkartean aurki daitezkeen handienak dira, langabetuen erdiak baino gehiago aldi luzekoak dira, lan-merkatuaren heren bat kolokan dago, familien %17 pobreak dira eta 60.000 familia inguru pobreziaren muga bizi dira, lanpostuak gero eta ezegonkorragoak dira (kontratu berrien %95 aldi baterakoak dira) eta dualizazio soziala areagotzen ari da; itxuratu den egoera mingarri horrek bete-betean jotzen du gure nahi sakonena, gizarte zuzena, demokratiko eta propioa sortzeko nahia alegia.

Ondasunen banaketa proposatzerakoan, hau da, gizarte soldata eta lanaren banaketa proposatzerakoan, dinamika sozial berri bat bultzatu nahi dugu, gai hori errealismoz jorratu, gure duintasun kolektiboa berreskuratu eta gure gizartea norabide aurrerakoian bideratzeko.

Euskal Herriarentzat, beraz, gizarte soldata ezartzeko eta ondasunak banatzeko neurri horiek ezinbesteko giltza sozialak dira inperialismoaren, Nazio-Estatuen eta eredu neoliberalaren erasoei aurre egiteko.

Agerikoa da, halaber, horrelako ekinbideak ezin direla Espainiak ezarri digun sistema parlamentario antidemokratikoaren hizka-mizken menpe utzi; izan ere, hiritarrentzat hain funtsezkoak diren esku-bide horien defentsa edozein funtzionamendu demokratikoren legimitatearen gainetik jarri behar dugu.

# Lanaren banaketa

eta

Gizarte Soldata.

Ondasunen banaketan oinarritzen den dinamika sindikal berriaren ardatz nagusiak lanaren banaketa eta gizarte soldata dira. Aldi berean, bi ardatz horietan oinarritzen den dinamika sindikal horren abiapuntua Euskal Herriko hiritar guztiei dagozkien eskubide unibertsalak berreskuratzeko beharra da. Dinamika sozial berri horrek proposatzen duenez, pertsona guztiek -pertsonak izateagatik- eskubidea dute bizimodu duina izateko, eta, horrenbestez, neurriak proposatzen ditu hiritar bakoitzak lanpostu bat eta bere beharrak asetzea ahalbidetzen dion oinarritzko errenta bat izan ditzan.

Lanaren banaketa eta oinarritzko errenta bi proposamen konkretu dira, langabeziak eta bazterketa sozialak sortu dituzten arazo larriak konpondu nahi dutenak; bi proposamen horiek irizpide desberdinak hartu dituzte oinarritzat:



## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

• Lanaren banaketa lan egiteko eskubidean oinarritzen da. Gizartearen partaide izateagatik dagozkigun eskubide eta betebeharrak gureganatzeko eskubidea da, gizarte horretako hiritar aktiboak garen aldetik. Era horretan, eskubide horri esker gure gizartearen produkzio-jardueran modu arduratsuan parte hartzeko aukera izango dugu, nork bere lana betetzaren bitartez. Eskubide horretaz hitz egitean, beraz, egin beharreko lanean pertsona aktibo guztiek duten erantzukizunaz hitz egiten dugu. Lan egiteko eskubide horrek, gainera, nolabaiteko legitimitate eta estimazio soziala berreskuratzeko aukera eskaintzen du.

Hala eta guztiz ere, gaur egungo egoerak ezinbesteko bihurtzen du lan merkatutik kanporatuta daudenen premiei aurre egitea. Izan ere, bazterketa hori gaingitzea izaten da, sarritan, kolektibo horren gizarteratzea ekar dezaken tresna bakarra; independentzia ekonomikoa eskaintzen die emakumeei, eta "onarpen sozial autonomoa" gizonei; gizartearentzat baliagarriak direla erakusten die bi sexuetakoei, eta behar dituzten bitartekoak eskuratzeko, hots, jatekoa, bizilekua, osasuna, hezkuntza eta kultura

eskuratzeko behar dituzten bitartekoak. Bestela esanda: bazterketa hori gaingitzea autoestimaziora eta hiritartasunera iristeko bidea da, gizarte honetan, kolektibo horretako kideentzat.

• Oinarrizko errenta hiritartasun eskubidean oinarritzen da. Horren arabera, edozein personak badu produktu sozialean parte hartzeko eskubidea, gizartearen partaide izateak eskubide hori ematen baitio. Pertsona guztiek esfera sozialean parte hartzeko duten eskubidearekin pareka daiteke. Hiritartasun sozial hori da, hain zuzen ere, izaera unibertsaleko gizarte soldataren eskakizuna oinarritzen duena. Soldata horrek diru-sarrera bat bermatzen die pertsona guztiei (balidintzarik gabe eta horren truke ezer ere eskatu gabe), orainaldian zein etorkizunean normaltasunez jardun ahal dezaten, lan merkatuan duten egoera edozein delarik ere, edo, bestela esateko, lan merkatuaren barnean zein kanpoan egonik.

Begi-bistakoa da gizarte errenta hiritarren eskubideentzat jo behar dugula, eta, horren eraginez, lehen-tasuna eman behar zaiela lan merkatutik kanpo daudenei eta probrezian edo bazterturik bizi direnei.

Lana eta enplegua



## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.



Lanaren definizioa hauxe izango litzateke: gizarte produkzioaren eta erreprodukzioaren eremuan bildutako ondasun eta zerbitzuak sortzen dituen giza jarduera. Lan hori "merkaturatzen" ote den irizpidetzat hartuta, honako bereizketa hau egingo dugu lanean:

- Ordaindutako lana. Merkatuan eta soldatapean dagoen lana da. Normalean, "enpleguarekin" lotu ohi dugu. Lan mota hori da legitimazio sozialaren iturria, baita eskubideak (laguntza sozialak, gizarte segurantza, pentsioak, etab.) sortzen dituen ere. Aldi berean, lanaren banaketa aplikatzerakoan esanahi berezia dutenez, ordaindutako enpleguaren barnean bi osagai bereiztu behar ditugu:

- Nazioarteko merkatuaren logikak ezarritako "errentagarritasun" irizpideei atxikitzen zaizkien lanak.

- Logika horretatik autonomo diren lanak (lan publikoak eta lan babestuak).

• Dohainikako lana. Ez da merkaturuan saltzen, eta ez du erabilera-baliarik (bolondresak, norberaren kontsumora bideratutako lana, pertsona nagusiak zaintzea, etab.); esanahi nabarmena du "erreprodukzioaren" esferan (haurrak ekartzea, familiako hezkuntza, etab.). Dohainikako lanik hedatuena "etxeko lana" deritzana da.

Gaur egungo gizartean, "gizonezkoek" esparru publikoa menperatzen dute, eta produkzioaren esferan duten posizioagatik definitzen dira. "Emakumezkoak", ordea, esparru pribatuari eta etxeari atxikirik daude. Emakumezkoen definizioa erreprodukzioaren esparruan duten posiziotik dator; euren lana ez da merkaturatzen (nahiz eta gizartearentzat ezinbestekoa den), eta, hortaz, ez da ez ordaintzen ez baloratzen. Azken urteotan, dena den, produkzioaren esparruan hasiak dira sartzen, baina lehenengo definizioak baldintzatu egiten ditu lan merkaturatzen duten integrazioa eta produkzioaren esparruan duten posizioa. Horrek

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

argitzen du gaurko gizartean emakumezkoek lan-jardunaldi bikoitzarekin duten lotura, hau da, argitzen du zergatik onartzen dituzten, hain erraz, aldi partzialeko lanak eta lan-malgutasunaren beste forma batzuk.

Garbi dago, beraz, lanaren banaketa ez dela mugatzen "enplegua" ("ordaindutako" eta/edo "soldatapeko" lana) banatzera; aitzitik, "lantzat" har daitekeen

giza jarduera osoa hartzen du barne lanaren banaketak. Lanaren banaketa proposatzera-koan kontutan hartu behar da, ezinbestean, jaiotze beretik emakumezkoek jasaten duten bereizkeria estrukturala. Hori horrela izankik, nahitaezkoa da etxeko lana ere banatzea, lan-jardunaldi bikoitz eta hirukoitzarekin emakumezkoek duten "harreman bikainak" ezartzen dituen kateak hausteko.



# Lana banatzeko arrazoiak.

Lehenik: mikroelektronikaren iraultzatik datozen "teknologia berriak" esparru sozioekonomikoan aplikatzearen ondorioz herri industrializatu guztietan nagusituz doan joera bat ekarri behar dugu gogora. Izan ere, munduko ekonomiaren hazkundera geldoa -BPGaren hazkunderatasak txiki samarrak izan dira azken hamarkadotan- historian parekorik ez duten berrikuntza eta garapen teknologikoekin batera gertatu da (produktzio prozesu erdi automatizatuak leku orotan nagusitu dira, eta produktzio prozesu erabat automatizatuak nagusituz doaz toki askotan). Aldaketa horiek egundoko iraultza ekarri diote produktibita-

teari, eta, horren eraginez, produktio prozesuetan erabiltzen den lan-denboraren zati handi bat soberan dago. Bilakaera horrek "estrukturalizat" jotzen den langabezia mota bat sortu du, gaur egungo logika eta politika ekonomikoekin ezin konpon daitekeena. Automatizazio prozesu horrek ondorio nabarmenak ditu enpleguaren eremuan ere. Zentzu horretan:

- Lana sortzeko ahalmena eta BPGaren hazkundera (%2, %3 edo %4) elkarrekin lotzen dituen diskurso ofiziala faltsua dela erakutsi du. Izan ere, mikroelektronikaren iraultzak modu erabakiorran mugatzen du lanpostu

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

berriak sortzeko ahalmena, BPGaren eta enpleguaren arteko lotura gotik behera aldatzen baitu. Estatistikak erakusten digunez, 1970-1990 garaian bikoiztu egin zen Espainiar Estatuko BPG erreala (hazkuntza %103koa izan zen); enpleguak, berriz, behera egin zuen (-%0,3) garai berean. Orain dela gutxi Jauregik argitaratu duen inkesta baten arabera, EAEko ekoizpen industriala %22 hazi da 1985 eta 1996 bitartean; enpleguari dagokionez, ordea, %35ko beherakada egon da garai horretan.

- Autoenpleguaren mitoa ezereztu du. Agerikoa denez, automatizazio prozesuak nabarmenki igo du ibilgetua/lanpostua ratioa, edo, bestela esateko, gure gizartearen batezbesteko lan- eta soldata-baldintzetan lanpostu baten bideragarritasuna ahalbidetzeko egin behar den inbertsioa nabarmenki igo da (lanpostu bakoitzeko 20, 30 edo 40 milio pezeta

inbertitu behar dira, gaur egun, Hego Euskal Herrian). Horrelako egoera batean, bada, ezinezkoa da "autoenpleguaz" baliatzea, baztertuek ezin eskura dezaketelako horrenbesteko diru-kopururik, edo, bestela, hainbesteri-noko zorpetze-maila bideratzea ezinezkoa gertatzen zaielako.

- Lan kontratuaren izaera aldatu du, gaur egungo lan-bazterketari aldaera politiko bat erantsi baitio. Iraganean, historikoki, langileak soldata baten truke saltzen zuen bere lan indarra. Orain, haatik, teknologia berrien aplikazioak aldatu egin du lan kontratuaren izaera, langileen adimena eta ekimena ere inplikatu nahi baititu produkzio prozesuetan. Agertu den lan kontratu berriak beren "lan indarra" eta beren "atxikimendua" saltzera behartzen ditu langileak, enpresaren proiektuaren alde jardun dezaten. Kontratu mota berri hori aitzakiaz baliaturik, kapitalak baldintza sozial, politiko eta ideologikoak

→ Lana banatzeko  
arrazoiak.



ezartzen dizkie lanean hasi nahi dutenei, eta, beraz, kapitalarekin identifikatzen ez direnak "bartzertzeko tresna" bihurtzen dira lan kontratuak orain.

Bigarrenik: eredu fordistaren (Bigarren Mundu-Gerraren ostean gizarte industrializatutan nagusitu zen eredu) krisiak suntsitu egin ditu "Ongizatearen Estatua" zeritzanaren oinarri materialak, teknologia berriak

txertatzearen eta merkatuak nazioartekotzearen bitartez. Globalizazioaren aurrerapenak zalantza beteriko egoera ekarri du berekin, lan-egonkortasuna suntsitzearekin batera atzerapen sozial nabariak eragin baititu; etapa berri horri aurre egiteko, logika berriak asmatu eta hedadura handiko neurri soziopolitikoak hartu behar dira, hala esparru sozialean nola ekonomiko eta politikoan.

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

Hirugarrenik: aro fordistako erre-gulazio-eredu estatala produkzio zein merkatuen nazioartekotasu-nari kontrajartzearen ondorioz sortu den egoera berri honetan neoliberalismoaren eraso itzela pairatzen ari gara mundu mailan. Eraso horren ardatz nagusia hauxe da: logika sozial edo poli-tiko guztiak munduko merkatuak ezarritako logika ekonomikoaren menpe jarri ditu, eta, horren era-ginez, ezegonkortasun soziola-borala aregotu, ordenaren eta segurtasunaren logika finkatu, eta dualizazio soziala indartu du. Horrek "eguneratzen" du, baita "premiazkoago" bihurtu ere, errotiko neurri eraginkorrak hartzeko beharra.

Laugarrenik -eta hauxe da arra-zoi nagusia: Hego Euskal Herriko lan merkatuaren egoera dramati-koa da. Langabezi tasa biztanle-ria aktiboaren %20aren gainera dago, ezegonkortasuna ia estruktural bilakatu da lan mer-katuan, eta ia orokorra lanpostu berrietan, eta 100.000 pertsona baino gehiago "erabateko


pobreziazko egoeran" bizi dira; horrek guztiak adierazten du, ait-zakiarik gabe eta nahitaezean, arazo horri gizarte soldata uni-bertsalez eta lanaren banaketaz aurre egin behar zaiola.

Bosgarrenik: kontutan hartu behar dira hazkunde ekonomi-koaren muga ekologikoak. Ingurugiroaren eremuko arazoak gero eta larriagoak dira, eta haz-kundeak behar dituen erreser-bak (lehengaiak eta energia) agortzen ari direla gero eta gar-biago antzeman daiteke. Egoera horrek guztion erantzukizuna eskatzen du, gizaki guztien inte-resak, datozen belaunaldien inte-resak, Hirugarren Munduko herrien garapena eta planetako biziaren jarraipena defendatuko dituen belaunaldiarteko elkarta-suna bilatzeko. Hazkunde ekono-mikoari ikuspuntu ekologistatik begiratze horrek lehentasuna ematen die lanaren banaketari eta gizarte soldatari, enplegua sortzeko beste edozein politika-ren gainera jartzen baititu.

# Lana banatzearen aurkako arrazoiak.

Lana banatzearen aurka erabili diren argudio nagusiak honako hauek dira:

- Lehenengoa: batzuek diotenez, mikroelektronikaren iraultzak ekarri dituen teknologia berriek enplegua ezabatzen dute zenbait sektore ekonomikotan -nekazaritzan eta industrian-, baina sortu ere lanpostuak sortzen dituzte hirugarren sektorean -hezkuntzan, ikerkuntzan, aholkularitzan, ostalaritzan, osasun-zerbitzuetan, garraioetan, etab.-. Argudio hori zuzena da, oro har, baina sortzen diren lanpostu berriak



## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.



(portzentajeen ikuspuntutik) lehen, ezabatu direnak baino askoz ere gutxiago direla ezkutatzen du. Aurreko atalean adierazi dugunez, BPGaren eta enpleguaren arteko loturak azken bi hamarkadetan izan duen bilakaerak berretsi egiten du esandakoa.

- Bigarrena: instituzio eta agintari publikoen diskurtsoarekin bat egiten duen sektore zabal baten

irritiz, egin beharrekoa ez da lana banatzea, baizik eta "lanpostu berriak sortzea". Azken 25 urteotan, gertatutakoak, ordea, erabat ezeztatzen du etengabe-ko diskurtso ofizial hori. Izan ere, errezeta hori 25 urtez aplikatu ondoren zera ikus dezakegu: Europa aberats honetan 18 milioi langabetu daudela, eta horietatik erdiak baino gehiago langabezia-aldi luzekoak direla. Argudio horren faltsukeria are nabaria-

goa da Espainiar Estatuan eta Euskal Herrian, euren langabezi tasa Europakoa baino bi aldiz handiagoa da eta. Gainera, mugimendu ekologistak produkzio garapenzaleari egiten dion kritikak eragozpen serioak jartzen dizkio proposatutako argudio horri.

- Hirugarrena: zenbaiten ustez, ezinezkoa da lana banatzea lan kostuak (bai kostu finkoak eta bai proportziozkoak) neurri berean murriztu ezean; diotenez, hori egiten ez bada enpresek porrot egingo lukete. Hau da, itxi egingo lituzkete, eta, horren ondorioz, langabezia areagotuko litzateke. Egia da, izan, lan kostuak neurri berean murriztu beharko liratekela; ez, ordea, "soldata mailak", elementu batzuek finatzatuko bailukete soldaten kontentsazioa (laguntza sozial gutxiago egongo lirateke, ordukako

produktibitatea handituko litzateke, zerga-baliabide gehiago egongo lirateke, etab.).

- Laugarrena: beste batzuek diotenez, lan-jardunaldia murrizteak ez du lanpostu berriak sortzera eramango. Euren ustez, egia da aurrerapen teknologikoak lan-jardunaldia murriztera eta ondusun gehiago denbora laburragoan ekoiztera daramala, baina horrek ez du kontratazio berririk sortzen. Argudio horretan kontraesan bat isladatzen da: alde batetik, aurrerapen teknologikoaren bidez liberatutako denbora aurkitzen dugu; bestetik, bere irabaziak ahal bezainbeste handitzea bilatzen duen kapitalaren logika. Onartu beharrekoa da, beraz, jabetza pribatuaren eta merkatuaren menpean dagoen gizarte batean modu bakar bat dagoela kontraesan hori gainditzeko: aparteko orduak ezabatzeraz eta

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

lan-jardunaldia murriztera behartzen duten legezko neurriak indarrean jartzea; horri laguntzeko, orobat, bestelako abantaila ekonomiko eta fiskalak proposa daitezke, kontratazio berriak egitea erabakitzen duten enpresak bultzatzeko xedez.

- Bosgarrena: batzuen esanetan, "enpresek" "nahi dutena ez da" lan orduak sartzeari, baizik eta langile mota jakin baten (prestakuntza handiko langileak, enpresaren proiektuari sendoki atxikiak, enpresaren jakintza tekniko eta soziolaboralaren jabeak) ordu-kopurua ahalik eta gehien handitzea. Argudio hori seriotan hartu beharrekoa da, eta dioenari aurre egiteko modu bakarra herri honetako giza baliabideen


politika orokorra bestelako eran orientatzea da, batezbesteko prestakuntza igoz, lanaren antolaketa eta politika soziolaborala aldatuz, eta gizarte zein ekoizpen arloko partehartzea garatuz.

Azken bi argudio horiek, dena den, ondo baino hobeto islatzen dute noraino den zaila (nahiz eta zailtasunak neurri espezifikoekin bitartez gaindi daitezkeen) lana banatzea, merkatuaren eta ekoizpen-bitartekoekin jabetza pribatuaren menpe dauden gizartean behintzat. Horrek erakusten duenez, gaur egungo lan merkaturak eraginkortasunez gainditzerakoan izaera estrategikoa du gizarte soldata modu unibertselean ezartzeak eta "komunitate-lana" abian jartzeak.

# Dinamika berriaren abantailak.

Nolanahi ere, merkatuko ekonomia-  
ren eta ekoizpen-bitartekoen  
jabetza pribatuaren hegemonia-  
ren menpe dagoen gizarte  
honek berez dituen zailtasunak  
gorabehera, ondasunak banatze-  
ra zuzendutako dinamika sindi-  
kal berriaren abantaila nagusia  
bere aplikazioak sor dezakeen  
dialektika da; izan ere, "bide

berri bat" hasteko nahia indar  
dezake, hainbat borroka eta  
esparrutan lortutako energia,  
esperientza eta jakintza aplika  
baititzake hainbesteko garrantzia  
duen eremu berri honetan, hots,  
lan banaketaren eta gizarte sol-  
dataren eremuan. Begi-bistakoa da  
zein diren gisa horretako dinamika  
sozialak sor ditzakeen abantailak:



## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

- Aktiboen eta baztertuen artean sortu den amildegia arian-arian gaintzera eraman gaitzake, gure gizartean nagusitu diren ezegonkortasun eta dualizazio soziala neurri handi batean berdinduz.

- Berari esker berreskura daitezke euskal gizartearen sektore baztertuen protagonismo sozial eta politikoa ahalbidetzen duten baldintza materialak. Bestela esanda, arrazoi ekonomiko, sozial eta -sarritan- politikoak direla medio baztertuak izan diren sektore horiek baldintza objektibo -eta askotan subjektiboak-hobeak dituzte orain gizarte berri baten alde borrokatzeko. Horixe da, gure ustez, egoera berri baten sorreran izan dezakeen eraginagatik, dinamika berriaren ekarpenik esanguratsuena.

- Autoesplotazioa ezabatzen du: gizarte modernoetan existentzia kontzientziaren aurretik dagoela dioen printzipioaren arabera, gizakiak behartuta daude -materialki- beren lan-indarra soldata baten truke saltzera, bizirik irauteko dituzten beharrak asetzeko modu bakarra horixe baita; hori egitean, bada, bestelako egoera batean onartuko ez lituztekeen baldintza laboral eta sozialak onartu egiten dituzte gizakiek.

- Langile eta hiritar aktiboengan oinarritzen den kultur eta gizarte ereduak behar dituen kultura eta prestakuntza garatzen ditu.

- Egoera hobea sortzen du dohainikako lana -etxeko lana batik bat- banatzeari ekiteko, gizarte errenta eskuratzeko baldintzak ikuspegi berri batetik ezarriz.

Lan-jardunaldia murriztea eta soldataren

konpentsazioa.

Eztabaida teorikoa.

Langabezia gora egiten hasi zenetik sarritan eztabaidatu da lana banatzeko beharraz; hori egin den bakoitzean zera esanda, neurri hori bideragarria izan dadin ezinbestekoa dela soldata errealak proportzio berean murriztea. Hori esatean, soldatapeko langileen elkartasuna (eta baztertuenganako elkartasun eza) lortu dute sistemaren defendatzaileek eta lana banatzearen aurkakoek. Hori dela eta, hurrengo orrialdeetan problematika horren puntu nagusiak laburbilduko ditugu, "lanaren banaketa eta soldata maila" edo "lanaren banaketa eta soldataren konpentsazioa" terminoen inguruan Europan gauzatzen ari den eztabaida azaltzarren.



## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

### Lanaldiaren murrizketa eta enpresen lehiakortasuna

Hasteko, lanaren banaketak enpresen munduan izango lukeen eraginari buruzko analisi ekonomikoa azalduko dugu. Halatan, oraingo lan-jardunaldia portzentaje batean (%10, %20 edo %25) murrizten baldin badugu, lanpostu-kopurua neurri berean handitzea xedetzat harturik, hiru aukera desberdin agertuko zaizkigu:

- Lehen aukera: lan-jardunaldia dagokion soldata-murrizketarekin batera murriztea. Kasu horretan sortuko litzatekeen egoera berrian, ordukako batezbesteko produktibitateak gora egingo luke, zeren pertsona bakoitzak lanordu gutxiago egiteaz gain laguntza sozial gutxiago eskaini beharko bailitzazkieke langabetuei, langabetu-kopurua murriztuko litzateke eta. Bestelako hitzetan: kostu unitarioak

jaitsiko litzateke eta lehiakortasuna handituko litzateke (lanpostu gehiago sor litezke), baina horren truke proportzio berean murriztu beharko litzateke hileroko errenta: langileek lehengo orduko soldata berdina izango lukete, baita aisaldi gehiago ere, baina gutxiago irabaziko lukete.

- Bigarren aukera: lan-jardunaldia murriztea soldataren konpentsazio orokor batekin. Lanean ari ziren langileek beren hileroko errentei eutsiko liekete (eta langile berriek errenta horiek eskuratuko lituzkete), baina kostu unitarioak jaitsiko lirateke, eta, horrenbestez, baita lehiakortasuna ere. Egoera horrek errentagarritasun gutxiko enpresak ixtera behartuko luke, eta horren eraginez lanpostuak desagertuko lirateke. Langileek orduko soldata hobe izango lukete, baita aisaldi gehiago ere, baina enpresaren etorkizuna kolokan jartzeko arriskua eragingo lukete.

→ Lan-jardunaldia murriztea eta soldataren konpentsazioa. Eztabaida teorikoa.




• Hirugarren aukera: lan-jardunaldia murriztea soldata-kompentsazio partzial batekin. Era horretan, kostu unitarioak mantenduko lirateke. Aurreko kasuetan bezala, egoera berri horretan ere laguntza sozialak aurreztuko lirateke (laguntza sozial gutxiago eman beharko lirateke). Soldata-kompentsazioa ordukako batezbesteko lehiakortasun-hazkuntetik eratorriko litzateke; izan ere, kalkulu guztien arabera,

pertsona bakoitzak lanordu gutxiago egiteak lehiakortasuna handitzen du, eta, horrenbestez, konpentsazio hori ez litzateke oso nabarmena izango (kompentsazio hori, gainera, kotizazio sozialak fiskalizatzearen bidez ere handi liteke). Langileek orduko soldata hobea izango lukete, baita aisialdi gehiago ere (enpresaren etorkizuna arriskuan jarri gabe), baina euren errenta orokorrak behera egingo luke.

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

### Soldata-konpentsazioa (Husson eta Lipietz)

Dena dela, soldata-maila orokor-  
rak (hileroko errentak) aurre-  
kontu publikotik hartutako balia-  
bideekin konpentsatzeko auke-  
rak -soldataren zati bat aurrekon-  
tu publikotik hartutako diruaz  
ordaintzea- beste bide batetik  
eraman dezake eztabaida,  
Frantziako bi korrontek ongi asko  
adierazten dutenez.



- Alde batetik, Michel Husson, L.C.R. alderdia eta "Agir ensemble contre le chômage" mugimendua ditugu. Berauen ustez, posible da lan-jardunaldia nabarmenki murriztea (39 ordutik 35 ordura) soldata-maila osoa konpentsatuz (hau da, hileroko soldata murriztu gabe). Soldata osoaren konpentsazioa diru publikoaren bidez egingo litzateke, hau da, soldaten zati bat diru publiko-koz ordainduko litzateke; diru publiko horren iturriak hauexek izango litzateke: laguntza sozialetan aurreztutakoa, iruzur fiskalaren aurkako borrokan irabazitakoa, ondarea eta finantza-errentak zergapetuko litzuzkeen erreforma fiskala, eta produktu-unitate bakoitzeko amortizazio-kostuen murrizketaren (eskaria handituko litzateke, eta horren eraginez ekipoak gehiago erabiliko lirateke) bidez lortutako etekinak. Era horretan, beraz, lehen aipatu dugun bigarren aukera bideratuko litzateke. Korronte horretakoen kezka nagusia enpresariei irmotasunez aurre egitea da, euren aurrekontuen

→ Lan-jardunaldia murriztea eta soldataren konpentsazioa. Eztabaida teorikoa.

bidarragarritasun ekonomikoa hobesten duten irizpideei gaur egungo soldata-mailak iraunderazteko beharra kontrajarriz (langileen batasuna indartuz); aldi berean, bazterkeria soziala arian-arian murriztuko duen dinamika sortzeko beharra azpimarratzen dute korrante horretako kideek.

- Bestetik, Alain Lipietz eta Mugimendu Ekologista daude. Euren iritziz ezinezkoa da soldata erabat konpentsatzea, eta, hortaz, "lan-jardunaldiaren murrizketa nabarmenak eta soldata-kompentsazio partziala" da proposatzen dutena; korrante horretakoen ustez, bazterkeriaren aurkako dinamikak sortzea soldata-mailei eustea baino garrantzitsuagoa da; bilatzen dutena, beraz, euren proposamenaren bideragarritasuna ahalbideratuko duten aukera ekonomikoak sakontzea da. Aintzakotzat hartu behar da, gainera, bazterkeriaren aurkako borrokoak lan-jardunaldiaren murrizketa, gizarte soldata eta komunitate-lana dakartzala berekin; hori horrela

izanik, eskura dauden baliabideak neurri horiek finantzatzeko erabili behar dira. Horrek nabarmenki aberasten du bigarren proposamen hori. Esan daiteke, hortaz, lehen aipaturako hirugarren aukeraz hitz egiten ari garela, nahiz eta proposatzen duen hileroko soldata-kompentsazioa aurreikusitakoa baino askoz ere handiagoa den.

## **Soldata-kompentsazio partzialerako aurki daitzekoen alternatibak**

Lan-jardunaldia murriztea eta hileroko soldata partzialki konpentsatzea proposatzen duen hirugarren aukera horren analisiak alternatiba desberdinak itxuratzen garamatza.

- Lehenengo alternatiba: soldataren konpentsazioa oraingo soldaten artean dauden desberdintasuen proportzioan egitea. Alternatiba hori egokiena izango litzatekete enpresako goiko mailakoentzat, eta desegokiena gizartearentzat (ez luke inor ere poztuko).

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

- Bigarren alternatiba: langile guztientzat soldata-igoera berdina onartzea (adibidez: guztiei 50.000 pezeta gehiago ordaintzea). Hori izango litzateke gizarteak hoberen onartuko lukeena; goiko mailekoek, ordea, ez lukete atsegin izango.

- Hirugarren alternatiba: beheko eta erdiko mailako soldatei osoko konpentsazio bat aplikatzea, goiko mailako soldaten konpentsazioa teknikarien eta enpresaren arteko negoziazioaren esku utziz. Lipietzen iritziz, hori izango litzakete alternatibarik egokiena Frantziako kasuan. Izan ere, langile gehienek (langileen erdiak baino gehiago, gutxienez) gehiago irabaziko lukete orduko, aisialdi gehiago izango lukete, eta hileroko errentei eutsiko liekete. Erdiko eta goiko mailako teknikarien egoera, berriz, enpresarekiko negoziazioaren bidez zehaztuko litzateke.

### **Lan-jardunaldia murriztera zuzendutako lege orokorra**

Lanaren banaketari eta soldataren konpentsazioari buruzko

eztabaida bukatzeko zera gogoratu behar dugu: proiektuaren bideragarritasun mikroekonomikoak oinarritzat hartzen duela lanaldiaren murrizketa gizarte osoari aplikatu beharra. Bestela esanda, produktibitate-hazkuntzaren aprobetxamendua, soldatak lanaldia baino gutxiago murriztearen bideragarritasuna, eta enplegua sortuko luketen sinergiak ahalbidetzeko modu bakarra lanaldiaren murrizketa gizarte osari aplikatzea izango litzateke.

Horrenbestez, lanaldiaren murrizketak orokorra eta esanguratsua izan behar du; bestela ez du ez eraginkortasun ekonomikorik, ez onarpen sozialik eta ezta kultur eragin positiborik ere. Horri dagokionez ados daude bi autoreak (Husson eta Lipietz); euren ustez, lan-aste berria (35 edo 32 ordukoa) ezartzeko modurik hoberena legearen bidez egitea da. Era berean, enpresa bakoitzak egoera ekonomiko desberdina duenez, ezinbestekoa izango litzateke lana banatzera bideratutako neurri berrien aplikazioaren erritmo eta formak enpresaz enpresa negoziatzea.

# Prozesuaren subjektu politikoak.



## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

Egoera ikusita, hurrengo urratsa prozesuaren subjektu politikoez hitz egitea da. Lana banatzeko ekimena ekonomikoki aktiboak direnengandik abiatzen bada, soldatari datzekion puntuek izango dute lehentasuna. Gainera, aro fordistan nagusitutako joera sindikal eta politikokoak norabide horretan bultzatzen du. Lana banatzeko ekimena baztertutako sektoreengandik baldin badator, ordea, lana banatzeko eta gizarte soldata ezartzeko logika soldataren garrantzia azpimarratzen duen logikari nagusituko zaio.


Aukera bakoitzetik, jakina, itun sozial desberdin bat ondorioztatzen da. Halatan, erabateko soldata-konpentsazioaren aukeratik (Michel Husson) eratoritzen den itun sozialak soldatapeko langileak eta baztertuak uztartzen ditu bere bertsio optimistan; bertsio pesimistan, berriz, soldatapeko langileak eta kontzientziaz zein ideologiaz jabeturik dauden baztertuak -hau da, gizartean eta lan merkatuan integratzeko nahia lorpen sozial zabalagoak eskuratzearen menpe jartzen duten baztertuak- uztartzen ditu.

Soldata-konpentsazio partzialek ondorioztatzen den itun sozialak, berriz, sektore baztertuak, egoera ezegonkorrean bizi diren sektoreak eta erdiko edo beheko soldata-mailetan dauden langileak uztartzen ditu (emakumezko langile ugari barne direlarik). Baztertuek, ezegonkorrek eta langileek osatzen duten ituna izango litzateke lanaren banaketa eta gizarte soldata hemen finkatuko lituzkeen oinarri soziala. Bigarren aukera horretan, soldatapekoek soldata-konpentsazioaren maila eta soldata-eskalaren moldaketa negoziatu beharko lituzkete, hala elkarren artean nola enpresarekin.

Gauzak horrela izanik, gogoan izan behar dugu ezen errenta unibertsalean eta lanaren banaketan oinarritutako dinamika berria lan merkatu osoan ezarri behar dela, eta bere eraginkortasunaren benetako sustraia langile aktibo, langile ezegonkor, etxekoandre eta baztertuen artean itun sendoa sortzea dela.

## Lana banatzeko Europa mailan egin diren proposamenak.

Lana banatzearen inguruko eztabaida aski hedatuta dago Europa mailan, eta gero eta gehiago dira mundu industrializatuan aplikatu daitezkeela uste dutenak. Horrekin batera, gizarte soldatari buruzko eztabaida sortzen ari da, eta gai horren erreferentzia lanaren banaketari lotuta ageri da gero eta areago. Jarraian, azken urteotan gai horri buruz Europan egin diren proposamenik konkretuenak laburbilduko ditugu.




## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

### Europako Batasuna

Europako Batasunaren esparruan bi proposamen azpimarratuko ditugu. Alde batetik, lanaldia murrizteari buruz Lantalde Ekonomiko eta Sozialak 1995eko abuztuan argitaratu zuen txostena. Txosten horrek bi alderdi nagusi aipatzen ditu. Lehenik: lanaldia murriztea enpleguaren egoera hobetuko lukeela; bigarrenik: ez dagoela lanaldia murrizteko Europako agintariek legez ezar lezaketzen eredu bakar bat.

Beste alde batetik, Gizarte Gaietan Lantaldean Michel Rocard euro-

diputatu eta Frantziar Estatuaren lehen ministro ohiak 1996ko urtarrilean aurkeztu zuen txostena aipatuko dugu. Rocarden ustez, langabezi sarien, aurrejubilazioen eta kotizatzen ez duten langabetuen osasun-laguntzen kostuak Europako Elkarteko BPGaren %4aren gainera daude (56 bilioi pezeta, gutxi gorabehera). Hori esateaz batera, langabezia nabarmenki murriztearen bitartez egundoko aurrezkiak lortuko liratekeela esan zuen. Aipatutako analisia oinarritzat harturik, proposatzen duena gizarte segurantzaren tarifak mailakatzea da; horren arabera,



lan-jardunaldia murrizten duten enpresen karga sozialak arinduko lirateke; lanaldia murriztu ez, edo, hori barik, luzatzen duten enpresek, ordea, zerga bereziak ordaindu beharko lituzkete.

M. Rocarden kalkuluek diotenez, asteko lanaldia batezbeste 34 ordutara jaisteak kostu sozialen %28 aurreztean ahalbidetuko luke, eta aurreztutako diruari esker %10 langile gehiago kontratatu ahal izango lirateke. Ken Coates eurodiputatuak kalkulatu-takoaren arabera, halaber, neurri hori aplikatzaren bitartez 3 milioi lanpostu gehiago sortuko lirateke Europako Batasunean.

Jarrera kritikoa dutenek diotenez, ordea, kotizazio sozialak murriztearen bidéz aurreztuko litzatekeen dirua produktibitatea nabarmenki igotzeko erabiliko litzateke, eta, horrenbestez, ez luke bermatuko enpresetan lanpostu berririk sortuko litzatekeenik. Hortaz, diru hori enpresen autofinantziazioa areago barneratzeko erabiliko litzateke, enplegua sortuko litzatekeela inola ere

bermatu gabe. Neurri horiek, gainera, asko gutxituko lituzkete gizarte segurantzaren baliabideak. Bestalde, Rocarden proposamenak ez du argitzen norainokoa izango litzatekeen soldata-kontentsazioaren neurria.

#### • **Alemania.**

Alemaniano langile mugimenduak lortu egin du 35 orduko lanaldia ekonomiaren sektore gehienetan ezartzea. Laurogeiko hamarkadatik aurrera, lanaldia 35 lanordutara eta soldata gutxitu gabe murriztea izan da metalgintzako sindikatuak (I.G.Metal) -fronte horretan langile mugimenduak duen benetako abangoardiak- izan duen helburu estrategiko nagusietako bat. Gogora ditzagun prozesu horretako ezaugarri batzuk.

Lehenik: gogan izan behar dugu prozesu horren oinarrian gatazka sozial garrantzitsuak egon direla. Halatan, metalgintzan hiru gatazka nabarmen gertatu dira, 1984ko (7 astez iraun zuena), 1987ko eta 1990eko grebetan

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

isladatu direnak; euren bitartez lanaldia arian-arian murriztea lortu zen (38,5 ordu 1985ean; 37,5 1988an; 36 1993an eta 35 ordu 1995ean), harik eta, azkenean, irrikaz desiratutako 35 ordutara soldata gutxitu gabe iritsi zen arte.

Bigarrenik: prozesu ekonomikoan produktibitate-hazkunde nabarmenak gertatu ziren, eta hazkunde horiek arazorik gabe berdindu zituzten lanaldi-murrizketak eta garai horretako soldata igoerak; horri esker, enpresarien etekinek gora egin zuten denbora horretan. Halatan, 1983 eta 1992 bitartean, orduko produktibitatea %22,8 igo zen aipatutako sektoreetan; batezbesteko lanaldi-murrizketa, berriz, %5,25ekoa baino ez zen izan. Garai horretan gauzatutako politika ekonomikoaren emaitza nagusia, hortaz, enpresarien etekinak handitzea eta lana murriztea izan zen, soldata-igoeren kalterako.

Hirugarrenik: lanaldia poliki-poliki murriztu izanaren ondorioz, prozesu ekonomikoak 650.000

lanpostu finko sortu ditu; aldi partzialeko lanpostuak ere zenbatuz gero, milioi batera iristen da sortutako lanpostu berrien kopurua. Hori, garrantzitsua dela ukatu ezinik, ez da inondik ere nahikoa pertsona baztertuak lan merkatuan integratzeko.

Ekonomiaren zeruan agertu diren hodei beltzek aukera hori indartuko dute, lehentasuna emango baitiote egoera larrian dauden enpresa askotako enpleguari eusteari. Hori horrela izanik, 110.000 langilez osatutako kolektibo bati aplikatutako Volkswagenean 1993ko hitzarmenak %20 murriztu zuen asteko lanaldia (36 ordutik 28,8 ordura), soldata %16 gutxitzeaz batera, berregituratze-planaren eraginpean zeuden 3.000 lanpostuak salbatzea xedetzat hartuta; horrek guztiak berretsi egiten du hemen esandakoa. Nolanahi ere, lanaldia murriztu eta enplegua mantentzearekin batera langileek asko galdu dute lan malgutasunaren eremuan, halako moldez non malgutasun hori soldata-konpentsazioa eta lanaldiaren

murrizketa baino kezkarria-  
goa den gaur egun langileentzat.

## Frantziar Estatu

Alemaniano langileriaren arra-  
kasta praktikoen ondoan, ekimen  
eta eztabaida teorikoen garape-  
nik sakonena Frantziar Estatuan  
gauzatu da. Aipa ditzagun eki-  
men nagusiak:

Enpleguari buruzko Bost Urteko  
Legeari Frantziar Senatuko  
Gizarte Gaien Batzordeak  
1993an egin zion zuzenketa.  
Zuzenketa horren arabera, lanal-  
dia murriztu eta langileen kopu-  
rura %10 handitzen duten enpre-  
sek nabarmenki murriz ditzakete  
euren kotizazio sozialak (%30 eta  
%40 bitartean). Horrela itxu-  
ratzen den egoera berriak zen-  
bait aldaera ditu.

Lehenik: kotizazio sozialak  
murriztearen bidez aldi partzia-  
leko kontratazioak bultzatzeko  
Bérégovoy ministroak proposatu  
zituen neurriak. Errealitatean  
ikusi denez, neurri horiek mer-  
kataritza-zentro handiei eta osta-

laritzari lagundu diete gehienbat,  
eta egin dutena aldi osoko enple-  
gua aldi partzialeko eta gaizki  
ordaindutako enplegu bihurtzea  
izan da.

Bigarrenik: 1996ko ekainean  
onartutako Robien legea.  
Beraren xedea Estatuaren eta  
Enpresen arteko hitzarmen bat  
"ziurtatzea" da, enpresek lanal-  
dia murriztu eta langile berriak  
kontrata ditzaten. Lege horrek  
%10 eta %15 bitarteko lanaldi-  
murrizketak eta proportzio bere-  
ko kontratazio berriak aurreikus-  
ten ditu; hori bultzatzeko, %30  
eta %40 bitartean murrizten ditu  
plana betetzen duten enpresen  
kotizazio sozialak. Aplikatu ere  
zailtasunak dituzten enpresetako  
lanpostuak ziurtatzeko aplikatzen  
da.

Robien legea kritikatu dutenen  
ustez, legeak ez du garbi esaten  
zer gertatzen den lanaldia  
murrizten zaien langileen solda-  
tekin, eta ez ditu kontutan hartzen  
neurri horiek Estatuaren diru-  
sarreretan eragingo luketen  
murrizketa.

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.


Enpresarien elkarteek eta sindikatu batzuek (C.F.D.T., F.U., C.G.T.) 1995eko urrian sinatu zuten hitzarmena. Bere xedea urteko lanaldiaren murrizketak bultzatzea da, eta negoziazioak produkzio arlo bakoitzean egitea proposatzen du. Ikusi ahal izan denez, urteko hitzarmenek egiten dutena produktibitatea handitzea izaten da, enplegua sortu gabe; horren ondorioz, hitzarmena bertan behera utziz joan dira sindikatuak.

Azken urteotan, orobat, "lanaldiaren murrizketa eta soldata maila" gaiari buruzko eztabaida teoriko bizia areago sakondu da (lan honetan jasotako eztabaida). Eztabaida horretan bi ikuspegi nagusitu dira: Biek hedatu dute lanaldia hasieran 35 ordotara eta gero 32 ordotara murrizteko xedea, eta, horretarako, lanaldi berria instituzionalizatuko lukeen Lege Orokor bat proposatu dute, gero beraren aplikazioa modu deszentralizatuan egiteko. Konpentsazio-fondo batek bermatuko lituzke aurrekontuen bidetik enpresei egingo litzaizkiekeen diru-transferentziak.

- Lehen ikuspegia: M. Husson eta "Agir ensemble contre le chômage" mugimenduak lanaldia sektore gutzietan 35 ordotara (lanaldiaren %10) murriztea proposatzen dute, soldata maila aldatu gabe. Horren bidez 1,5 milioi lanpostu sortuko lirateke. Finantziazio osoaren kostua BPGaren %4koa izango litzateke, gutxi gora-behera.

- Bigarren ikuspegia: A. Lipietz berdeen bozeramaleak lanaldia 35 ordotara jaistea defendatzen du, beheko eta erdiko mailako soldatak konpentsatuz, gero, arian-arian, 32 ordotara iristeko (kalkuluen arabera, horren bidez 2 milioi lanpostu sortuko lirateke). Lanaldiaren murrizketa hori garapen eutsigarrian oinarritutako estrategia ekologiko batekin elkartzen du Lipietzek, eta, osagarri gisa, erabilgarritasun ekologiko eta sozialeko hirugarren sektore bat ezartzea proposatzen du, gizartetik gaur egun baztertuta dauden 3 milioi pertsonak poliki-poliki gizarteratzeko.

→ Lana banatzeko Europa mailan egin diren proposamenak.



Bukatzeko, azken hauteskundee-tako kanpainan L. Jospinek proposatu zuena gogoratuko dugu. Jospinek proposatu zuen lanaldia lehen 37 ordotara eta geroago 35 ordotara murriztea, lege orokor baten bidez eta soldatak jaitsi gabe. Hauteskundeak irabazi eta gero, asteko 35 orduko lanaldia-  
ren Lege Orokorra 2000. urteko urtarrilaren 1ean ezartzeko konpromisoa berretsi du Jospinek, baita 700.000 lanpostu sortuko direla agindu ere (udal, ospitale, familia, ikastetxe, unibertsitate eta antzekoen beharrak asetzeko).

## Espainiar Estatua

Hego Euskal Herriko errealitate-an zuzeneko eragina dutenez, proposamen politiko eta sozial batzuk laburbilduko ditugu jarraian.

### • PSOE.

Bere azken biltzarreko txosten orokorrean lana banatzeko beharra plazaratu du. Horretarako hauxe proposatzen du: aldi partzialeko kontratuak hedatzea eta lanaldia soldatarekin batera murriztea.

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

### • Ezker Batua.

1993ko hauteskundeetako programan lanaldia murriztea eta soldata-murrizketa ez proportziozkoak (hilabeteko soldatak %70 edo %80aren azpitik jaitzi ez daitezten) egitea proposatu zuen. Lanaldia murriztearen aldeko proposamenarekin batera aparteko orduak desagertaraztea, aldez aurretiko jubilazioak aplikatzea eta bosgarren opor astea ezartzea ere proposatu zuen.

### • Partido Popular.

1996ko hauteskundeetan "enplegua sortzeko gehiago lan egin behar dela" esan zuen, eta "lanaren zentzugabeko banaketa pobrezia sozialdemokrataren banaketarekin bat datorrela" erantsi zuen.

### • U.G.T.

CCOOekin batera 1993ko urrian kongresuan egindako agerraldian, lanaldiaren murrizketa soldaten murrizketarekin

batera negoziatzea litekeela onartu zuten bi sindikatuen idazkari nagusiek.

### • CC.OO.

Bere azken biltzar konfederalean (1996) defendatu zuenez, 2000. urterako 35 ordotara murriztu behar da asteko lanaldia, soldatak jaitzi gabe, eta hori instituzionalizatzeko Lege Orokor bat onartu behar da.

### • C.E.P.Y.M.E.

1996ko hauteskundeetako kampanian eszeptiko azaldu zen lanaldiaren murrizketaren inguruan, "langileak merkeago kaleratu ahal izatea" izan baitzen bere eskakizun nagusia, plantilak malgutzearen bidez lanpostu berriak sortuko direla esanez.

### • C.E.O.E.

Eszeptizismo berdina antzematen zaio. Lanaldiaren murrizketa egoera konkretu batzuetan onartzen du soilik: enpresak birmoldatzen direnean, horren bidez ahalik eta lanpostu gutxien galtzeko.

Hego Euskal Herrian

egindako proposamen **batzuk.**



## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

Lana banatzeko eta gizarte soldata ezartzeko beharra geure mobilizazio eta proposamen orokorretan egon dira beti. Hala eta guztiz ere, lelo handi horiek bideratzeko ekimenak azken bi urteotan soilik zehaztu dira. Ikus ditzagun ekimen horiek laburbildurik.

### Lan Saila. Gasteiz

EAEko Jaurlearitzatik Ramón Jauregui Lan Sailburua izan da lanaldia murriztera zuzendutako politikak bultzatzen saiatu dena; politika horiek "defentsa" zein "eraso" izaerakoak izan dira, enpresaz enpresa bideratzekoak; modalitate osagarri batzuk proposatu ditu (lan malgutasuna, aparteko orduak desagertaraztea, gazteentzako hitzarmenak eta aldi partzialeko lana bultzatzea), eta praxira eramateko zergak arintzea eta laguntza publikoak eskaintzea proposatu du. Nolanahi ere, gomendio, orientazio eta neurri multzo bat besterik ez da, EAEk ez baitu gai horiei buruzko legeak egiteko eskumenik. Ekimen praktikoan artean,

beraz, enplegua bultzatzera eta lanaldia murriztera zuzendutako bi hitzarmen azpimarratuko ditugu.

- Arrasateko Kooperatiba Taldearekin (MCC) sinatutako hitzarmena; hitzarmen horren bidez 4000 lanpostu berri sortuko dira 2000. urtean. Hitzarmenak "aldi baterako bazkide langilea" deritzan figura sortzen du, eta handitu egiten du MCCko aldi baterako langileen kopurua.


- 15 euskal enpresa garrantzitsurekin sinatutako hitzarmena (euren artean CAF, Sidenor, Tubacex, Alfa, Mayc sartzen dira, baita nazioarteko enpresa batzuen sukurtsalak ere: Mercedes, Michelin, Guardian Audio eta Firestone). Enpresa horiek, orotara, 60.000 langile baino gehiago dituzte; hitzarmenak lanaldia murrizteko eta enplegua sortzeko forma batzuk proposatzen ditu, enpresa bakoitzaren egoerara egokituak (aparteko orduak ezabatzea, alde zuzeneko jubilazioak, kontratazio berriak, etab.).

## CONFEBASK

Enpresarien erakunde hori lanaldia murriztearen aurka dago, eta, hortaz, lana banatzeko proposatzen duena "aldi partzialeko kontratuak" (kontratu horiek emakumezkoen artean sustatzen ditu gehienbat, eta, horren bidez, langileen estatusen arteko desberdintasunak indartzen ditu) bultzatzea da. Erakunde horren filosofia argi eta garbi azaleratu zen 1995eko urrian egindako jardunaldietan, zera esan baitzuen: "lana sortu, suntsitu eta aldatzen da, baina ez da banatzen". CONFEBASKek bere egiten ditu Jaureguik proposatutako neurri, orientazio eta gomendioak; dioenez, lanaldia murriztera bideratutako edozein ahalegin enpresaz enpresa gauzatu behar da, eta, beti ere, soldata murriztearen truke.

## CCOO

Sindikatu hori bat dator Europako Sindikatuen Konfederazioaren proposamen



orokorrarekin: asteko lanaldia, 35 orduara murriztea hasiera batean, eta gero, poliki-poliki, 32 orduko eta 4 eguneko lanaldira iristea. EAEk oinarrizko eskumenik ez duenez, lanaldiaren murrizketa hitzarmen kolektiboen bidetik egin behar da - CCOOren ustez-, eta administrazio publikoak erreferentzia eta adibide izan behar du neurri horien aplikazioan.

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

### UGT

1995eko urriko jardunaldietan, lanaldia soldata gutxitu gabe murriztearen alde azaldu zen. Erakunde sindikal horren iritziz, prozesua finantzatzearen ardura administrazioak, enpresek (produktibitatean irabazitakoaren zati bat zeregin horretan inbertituz)

eta gehien kobratzen duten langileek (soldata horiek murriztuz) hartu behar dute.

### ELA

Lan arloko ahalmen eta eskumen falta ikusita, langileek eta enpresariak sektoreko eta lanbidearteko hitzarmenak sinatzea propo-



satzen du; horren bidez baldintza orokor batzuk ezar daitezke, gero enpresa bakoitzean zehaztekoak (administrazioak prozesuaren kontrolean parte hartu beharko luke). ELAren proposamen nagusiak honako hauek dira:

- Lanaldia nabarmenki murriztea, eta murrizketa hori modu zabalean aplikatzea (murriztutako lanordu bakoitzeko 17.500 lanpostu sortuko liratekeela kalkulatzen da);
- jubilazioa 60 urteko adinera aurreratzea (53.000 langileengan izango luke eragina, eta, lana ordezkatzeko politikak gauzatu gero, 14.000 lanpostu sortuko omen lirateke horren bidez);
- Aldi osoko langileei aldi partzialean lan egiteko eskubidea eskaintzea (aurreko kontratu motara itzultzeko eskubidea kendu gabe), eta, horren truke, kontratu-egoera berdina izango lukeen beste langile bat kontratatzea, murriztutako aldia betetzeko;

- Diru-laguntza eskaintzea diru-sarrerarik ez duten pertsona guztiei;

- Esfera soziala (gizarte segurantzaren, prestakuntza eta enplegua) eraikitzea ahalbidetuko luke ten estatutu-eskumenak eskatzea.

## Gizarte Eskubideen Gutuna

1996ko abenduan EAEn aurkeztutako Herri Ekimen Legegilearen asmoa Gizarte Eskubideen Gutun bat prestatzea zen, herriaren partehartzea oinarritzat harturik. 7 sindikaturen laguntza eta hainbat elkarte sozialen dinamizazioa izan duen ekimen horrek 82.000 sinadura bildu dituz, Gasteizko Legebiltzarrak eztabaidatu egin beharko du (proposamena onartuko balitz, gainera, aurrekontuen bidez finantzatuko beharko luke Legebiltzarrak). Orobat, 1997ko irailean antzeko ekimen bat hasi zen Nafarroan, Gizarte Eskubideen aldeko beste Gutun bat bultzatzeko xedez. Lan merkatuaren egoera aztertu eta gero, Gizarte Eskubideen Gutunak bi

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

proposamen nagusi plazaratu ditu:

- Lanaldiaren banaketa; euskal administrazioan asteko 32 lanordutara murriztuko litzateke lanaldia, aparteko orduak ezabatuko lirateke, jubilazioa 60 urteko adinera aurreratuko litzateke, eta kontratu finkoek aldi baterako kontratuak ordezkatzeko litzateke arian-arian. Benietako eskumenik ez dagoenez, herri ekimen legegile horrek negoziazio kolektiboz baliatzera bultzatzen ditu agente sozial eta ekonomikoak, administrazio autonomikoan proposatutako neurriak gizarte osora hedatu ahal izateko.

- Oinarrizko errenta, lanbidearteko gutxienezko soldataren adinakoa (68.040 pezeta hileko, 14 ordainketatan, 1998rako). Horren bidez, lan merkatutik kanpo dauden pertsona guztiek gizarte errenta bana izateko eskubidea izango lukete. Oinarrizko errentaren jasotzaileak hitzartuko lukete, administrazioarekin, horren truke zer-nolako lana egin beharko luketen gizartearen alde.

## Herri Batasuna

Ezker abertzalearen erakunde horrek zenbait proposamen aurkeztu ditu ondasunen banaketarako; hori egiteaz batera, proposamen bakoitzak zer-nolako eragina izango ote lukeen aztertu du. Lanaldiaren murrizketen eragina Hego Euskal Herriko produktio-sektore bakoitzerako kalkulatu du: Lehen Sektorea, Industria, Eraikuntza eta Zerbitzuak (azken sektore horri dagokionez, azpisektorez azpisektoreko azterketa zehatza egin du). Herri Batasunak ondoko epeen arabera sailkatu ditu bere proposamenak.

- Epe laburrera haxe proposatzen du: aparteko orduak ezabatzea (horren bidez, 19.800 lanpostu sortu ahal izango lirateke); lege orokor baten bitartez asteko 35 orduko lanaldia ezartzea (horri esker, 66.582 lanpostu sortuko lirateke); aldez aurretiko jubilazioa (10.000 lanpostu sortuko lirateke) eta langabetuentzako

zein gizartetik baztertuentzako gizarte soldata ezartzea (92.318 pertsonen oinarritzko beharrak asetzeko).

- Epe ertainerako proposamenak hauexek dira: asteko lanaldia 32 ordotara murriztea, urratsez urrats (60.968 lanpostu sortzeko); alde zurrerako jubilazio gehiago aplikatzea (8.000 lanpostu sortzeko); eta gizarte soldata hedatzea (23.350 pertsona gehiago babesteko).
- Epe ertainerako ikuspegiarekin batera, halaber, euskal esparru ekonomikoaren eta lan-harremantarako marko propioaren aldeko orientazioak eta arauak proposatzen ditu; horren bitartez garapen sozialerako eredu berri bat bultzatu nahi du, komunitatearen jabetza soziala indartu, sektore publikoa sustatu, Enplegu Institutua sortu eta Gizarte Segurantzaren Euskal Sistema Publikoa ezartzeko xedez.

## LAB

Sindikatu horren proposamena asteko lanaldia 38 ordotik 32 ordotara murriztea da, soldatari eutsiz (%16,2); horren bitartez 100.000 lanpostu sortuko lirateke, eta, aldi berean, langabezi tasa %10era jaitsiko litzateke. LABek subiranotasun politikoa eskatzen du: Lan-Harremantarako Marko Propioa lortzearen bidez euskal langileek euren arazoaren benetako protagonistak izango lirateke; hori ezinbestekoa da, zeren asteko 32 orduko lanaldia ezartzeko lege orokor bat ere baita beharrezkoa, lanaldi berria Euskal Herri osoan aplikatu dadin.

Erakunde sindikal horren ustez, lanaldia murriztera zuzendutako neurriak aplikatzeaz gain badira egin beharreko beste zeregin batzuk, hala nola aparteko orduak ezabatzea, jubilazioa 60 urteko adinera aurreratzea (jubilatuen lanpostuak langile berrieekin betez), Aldi Baterako Laneko

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.



Enpresak ("ETT") desagertaraztea eta gizarte soldata unibertsal egoki bat ezartzea (baliabiderik ez dutenek gutxienezko duintasunez bizi ahal daitezten); horrez gain, erabilgarritasun ekologiko eta sozialeko sektore bat ezarri beharko litzateke -diru publikorekin finantzatuta- lan merkatutik kanpo daudenak barneratzeko; horretarako, jakina, aldaketak egin beharko lirateke garapenereduan eta garapen-logikan.

# Proposamenak

## finantziatzeko era.

Hasierako egoeran zereginik premiazkoei ekin beharko litzaieke; horretarako, lanaren banaketa eta gizarte soldata finantzatzeko oreka egokia lortu behar da, finantziazioaren beharrak eta baliabideak proportzio neurritsu batean berdintzeko.

### **Finantza-Beharrak**

Behar horiek kalkulatzeko ondoko hartu beharko genuke kontutan:

- Aparteko lanorduak ezabatze-tik ondorioztatuko liratekeen lanpostu berrien kostua = 0.
- Lanaldia murriztearen bidez sortuko liratekeen lanpostuen kostua =  $a+b$ .  
 $a$  = lanpostu baten urteko batezbesteko soldata-kostua  $\times$  sortutako lanpostu kopurua.  
 $b$  = gizarte segurantzaren batezbesteko enpresa-kuota  $\times$  sortutako lanpostu kopurua.

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

- Aldez aurretiko jubilazioen kostua = jubilazio-pentsio baten batezbesteko balioa x jubilazio berrien kopurua.

- Gizarte soldataren kostua =  $a+b+c$

$a$  = urteko gizarte soldata unitarioa x langabetu kopurua.

$b$  = urteko gizarte soldata unitarioa x etxean lan egiten duten emakumeen kopurua.

$c$  = laguntza osagarriak (gizarte soldataraino iristeko) lan gutxi dutenentzat, aldi partzialeko langileentzat eta pensiodunentzat.

### Finantza-baliabideak

Finantza-baliabide berriei dago-kienez, honako hau hartu behar-ko genuke kontutan EAEn eta Nafarroan:

- Langabezi eta pobrezi arloko laguntzetan aurreztutakoa; laguntza horien kostua 104.680 milioi pezetakoa zen, 1996an, Hego Euskal Herrian.

- Orduko batezbesteko produkti- bitate-hazkundearen bidez sor- tutako (lanordu gutxiago egitea- ren ondorioz sortutako) baliabi- deak; baliabide horiek nabar- menki handiak izan daitezke, baina zaila da kalkulua egitea.

- Zerga-iruzurraren kontrako borrokaren bidez lortutako baliabideak. Halatan, kalkulu bat- zuen arabera, zerga nagusietan (soldaten errentak, RAEPA, BEZ, Elkargo Zerga, kapital errentak) gertatutako iruzurraren osoko zenbatekoa 600.000 milioi peze- taraino iritsi zen 1993an, eta horietatik erdiak (300.000 milioi pezeta) berreskura litezkeela pentsa daiteke.

- Zerga-sistema aldatzearen bidez lortuko liratekeen gehi- kuntzak. Erreforma horren bidez soldata handien, ondareen eta kapital errenten gaineko zergak haziko lirateke, Hego Euskal Herrian gaur egun indarrean dagoen zerga-sistemaren bide- gabeko izaerari buelta emateko.


- Aurrekontuetako gastuaren orientazioa aldatzearen bidez sortuko liretekeen baliabideak. Orientazio berri horrek gaur egungo lehentasunak aldatuko lituzte; izan ere, gaur egungo lehentasunak neurri handiko egitasmo ekonomikoak eta kulturak (A.H.T., Guggenheim), azpiegurutarako egitasmo erraldoiak eta, batez ere, geure herriaren beraren aurka zuzendutako poli-

zia eta segurtasunerako inbertsioak baitira; horrez gain, sektore publikoan dirauten pribatizatze-prozesuak, ustelkeria eta dirua xahutzeko joerak mugatuko lirateke.

- "Kupo" gisa Hego Euskal Herriak Estatuari ordaintzen dion kopurutik etor litezkeen baliabideak. Denok dakigunez, kopuru hori (300.000 milioi urtero, gutxi



## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.



gora-behera) Espainiar Estatuaren zapalkuntza indartzera bideratutako egitasmo estrategikoak (sozioekonomia, politika, kultura eta hizkuntzaren eremu-koak) finantzatzeko erabili ohi da, gure hizkuntza, kultura, lurraldea eta naziotasuna zanzatzeko.

### Balantzea

Behar eta baliabide finantzarioak kalkulatu dituen proposamen bakarra Herri Batasunarena izan denez, egoki iritzi diogu balantze bat sintetizatzeari. Horretarako, herri erakunde horrek prestatu dituen datuak erabili ditugu. Gogora ditzagun haren proposamena: gizarte soldata ordaintzea eta -soldata jaitsi gabe- lanaldia asteko 35 orduetara murriztea. Kalkulua (HBren epe laburrerako programatik hartua) urte bati dagokio.

• **Finantza-beharrak.**

• Aparteko orduak ezabatzearen ondorioz sortutako 19.800 lanpostuen kostua = 0.

• Lanaldia murriztearen ondorioz sortutako 66.582 lanpostuen kostua =  $131.699 + 39.510 = 171.209$  milioi.

- Osoko soldata-kostua = 131.699 milioi.

- Gizarte Segurantzari ordain beharreko enpresa- kotizazioen kostua = 39.510 milioi.

• Aldez aurretiko 10.000 jubilatzen kostua = 16.800 milioi.

• Gizarte soldataren kostua =  $87.938 + 93.052 = 180.990$  milioi.

- 92.318 langabetuen gizarte soldataren kostua = 87.938 milioi.

- Laguntza osagarrien kostua = 93.052 milioi.

• Osoko kostua = 368.999 milioi.

• Osoko kostua, gizarte segurantzako gastuak kenduta = 312.689 milioi.

• **Finantza-baliabideak.**

• Langabezi eta pobrezi laguntzak = 104.680 milioi.

• Zerga-iruzurraren aurkako borroka = 300.000 milioi.

• Zerga-erreforma = 15.000 milioi.

• Aurrekontu-gastuaren orientazioa aldatzea = 78.000 milioi.

• Estatuarentzako finantza-transferentziak (kupoak) = ?

• Osoko baliabideak = 497.680 milioi pezeta.

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.



Ikus dezakegunez, eskura litezkeen finantza-baliabideak 497.680 milioikoak izango lirateke (gaur egungo "kupoan" egin litezkeen aldaketak baloratu gabe). Zenbateko hori nahikoa da gizarte soldata ezartzearen eta asteko lanaldia -soldata mantenduz- 35 orduz murriztearen bidez sor litezkeen finantza-beharrak (368.999 milioi) ordaintzeko.

Gainera, finantzaketa beharrak 312.689 milioira jaitsi beharko lirateke, zeren 56.310 milioi enpresen kotizazio sozialak baitira, eta diru hori gizarte segurantzak ordaindu behar du Estatuaren aurrekontutik. Konpondu gabe geratzen da bizitenleria aktiboaren baremoetan integratzen ez den sektoreari dagokion gizarte soldataren finantzaketa (sektore hori etxe-koandreek osatzen dute gehienbat, eta euren problematikari egokitu beharko litzaioke finantzaketa hori).

Balantzean azaldutako beharren eta baliabideen kalkuluak orientazio gisakoak dira, begi-bistakoa denez; hala eta guztiz ere, Hego Euskal Herriko gaurko egoeran lana banatzerakoan eta gizarte soldata ezartzerakoan sortuko liratekeen finantza-beharrak ordaintzeko behar adina baliabide bil daitezkeela erakusten dute.



# Komunitate

# lana.

Lana banatzea ez da nahikoa lan merkatutik kanpo dauden pertsona guztiak integratzeko. Hori horrela izanik, "komunitate-lanaren" xedea oraindik integratu ez direnak merkatu horretan barneratzea da. Komunitate-lanaren bitartez langile eta hiritar guztiak iristen dira produkzio eta erreprodukzio zereginen protagonistak izatera; baztertuak barneratu, behar sozialak ase, komunitatea indartu eta integratu, erabilera-balioen sorrera bultzatu, eta komunitatekideen erantzukizuna garatzen du. Komunitate-lanak modu desberdinetan itxura daitezke. Ikus ditzagun Hego Euskal Herrian aplikatu litezkeen batzuk:

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

- Erabilgarritasun sozialeko (Lipietzen esanetan) sektore autogestionatu bat (kooperatibak, udalaren edo komunitatearen enpresak, etab.) abian jartzea; sektore hori sektore publikoaren laguntzaz finantzatuko litzateke (merkatuan jardutearen bitartez sektore horrek eskuratzen ez duen zatia sektore publikoak ordainduko luke), eta errantagarritasun ekonomiko gutxiko baina erabilgarritasun sozial handiko ondasun eta zerbitzuetan ezarriko litzateke (ingurugiro gaineko eraginaren ebaluazioak, ingurune ekologikoa zaintzea, kultur ondarea indartzea, udal ekimenak, ikastetxe eta ospitaleen eskariak, etxez etxeko laguntza, opor-eskaintzak, etab.).

Sektore horrek partehartzea bultzatuko luke, hala gizarte nola produkzio mailan, eta beharrian sozialak asetzerara orientatuko litzateke. Beharrian horien artean garrantzi berezia izango luke orain arte emakumeen esku egon izan diren zereginak (haurtzaindegiak, eskola-laguntza, gaixoak zaintzea, zaharrei laguntzea, garbitegi publikoak, etab.).

- "Partehartze sozial aktiboa" (Santi Duñabeitia euskal ekonomilariak sortutako kontzeptua) abian jartzea. Partehartze horrek egituratu egingo luke, hasierako mailan, hezkuntza amaitu eta gero lan merkatuan integratu ez den biztanleria-sektorea, hau da,



oraindik biztanteria aktiboa izatera iritsi ez dena. Proposatzen den eredu berriak bereziki zainduko luke sektore horren kapital intelektualaren garapena (batez ere beraren prestakuntza iraunkorra, motibazioa eta kualifikazioa), zeren sektore hori estrategikoa baita geure komunitatearentzat. Partehartze soziala sektore publikotik bultzatuko eta finantzatuko litzateke, eta era deszentralizatuan gestionatuko. Haren helburua hauxe izango

litzateke: sektore horren produktio- eta sormen-ahalmena behar sozialak asetzera bideratzea, eta, aldi berean, sektore hori produktio prozesu orokorrean arian-arian txertatzea.

Bigarren maila batean, berriaz, partehartze sozial aktibo horrek biztanle nagusien (jubilatutako, lan merkatutik kanpo dauden nagusiak, etab.) ekimenak, ahaleginak eta ezagutza bideratuko litzuzke, komunitatea garatzea eta erabil-

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

garritasun sozialeko ondasun eta zerbitzuak ekoiztea xedetzat harturik. Bigarren maila horretan, partehartze sozial aktiboak belaunaldi arteko elkartasunaren mekanismoak berreskuratuko lituzke; izan ere, horren bidez parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera eskainiko lioke adin-sektore horri, komunitatearen egitasmoetan txerta dadin.

- Erabilgarritasun sozialeko ondasunen zuzeneko produkzioa sustatzea. Produkzio hori sektore publikoak antolatu, taxutu, finantzatu eta kontrolatuko luke (udalak ere zeregin horretan inplikatur), eta haren helburua gure komunitatearen ingurunea hobetzea izango litzateke: ekologia, hirigintza, kultura eta politikaren arloetan (hirien zaharberrikuntzarako lanak, herri mediatekak, euskalduntzearen aldeko kanpainak, euskal gaiak eta euskal kultura jorratuko lituzketen zentroak, komunikazio egitasmoak, ikerkuntza egitasmoak, etab.).



# Metatze -dinamika berria

Garrantzitsua da aipatutako dinamika hori metatze-prozesuarekin lotzea. Ez dugu ahaztu behar metatze-fase berriaren baldintza ekonomiko (soldaten murrizketa), sozial (lan malgutasuna), politiko (aginte-harreman berriak) eta ideologikoen (indibidualismoa, korporatibismoa eta elkartasunik eza) erreprodukzioan bazterketak eta behin-behinekotasunak izan duten funtzioa. Ezinbestekoa da, beraz, lana banatzeak eta oinarrizko errenta ezartzeak metatze-prozesuan izango lituzkeen ondorio ekonomiko, sozial, politiko eta ideologikoak kontutan hartzea.

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.



Hala eta guztiz ere, fordismoaren metatze-eredua krisian dagoela ikusirik, aldaketa koalitatiboa eska dezakegu esparru horretan ere. Halatan, lana eta ondasunak banatzeko neurri berriak askoz ere eraginkorragoak izango lirake metatze-sistema berri batean txertatuz gero, hau da, lanorduak murriztuz doan eta produktibitatean irabazitakoa (enpresek behar dituzten inbertsioak baztertu gabe) lanaldia murrizteko eta komunitatea garatzeko sistematikoki erabiltzen dituen sistema batean. Metataze-dinamika berriari esker, gainera, ekologiaren susnospena geldiaraz genezake, baita, agian, kontsumo-eredua Hego Euskal Herriko komunitatearen ekologia, politika eta kultura berreskuratzerara orientatu ere.

# Ondasunen banaketa eta askatasun proiektua.

Prozesu hau gauzatu ahal izateko garapen ereduaz hitz egin behar dugu, baita eredu horrek askatasunarekin duen harremanaz ere. Horri dagokionez, azpimarratzekoa da partaidetzan oinarritutako eredu propio eta autogestionario bat lortzearen esanahia, kultura aktiboarena eta partaidetzazko demokraziarena ahaztu gabe. Garapena eta askatasuna benetakoak izan daitezten nahitezkoa da gizakiak eta gizarteak euren askapenaren subjektuak izatea.

Zentzu horretan gogoratu beharra dago erakunde askok, batez ere Nazio-Estatuaren alderdi eta sindikatuek, euren eurozentrismoari atxikirik behin eta berriz esaten digutena, hots, gizarteen arazo nagusiak pobrezia eta langabezia direla, eta ez menpekotasun harremanak. Irizpide horren arabera, lanaren eta ondasunen banaketa Nazio-Estatuari dagokion banaketa-arazo bat baino ez da indar sozial eta politiko horientzat, eta,

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

hori onartzean, alde batera uzten dituzte burujabetza politikoa eta askatasuna.

Gure ustez, ordea, pobreziak eta langabeziak bestelako zerbait azaleratzen dute, hots, menpekotasun harremanak gainditzeko gizarteek duten premia saihestezina, eta, zehazkiago, euren etorkizuna aukeratzeko eta euren lehetasun zein beharrei egokitutako garapen-eredu bat aurrera ateratzeko herri eta komunitate askok duten nahi bizia. Lan eta ondasunen banaketa, gaur egun, errotik lotuta dago menpekotasun kultura gainditzeari eta askatasunaren aldeko borrokari.

Lana banatzearen eta gizarte soldata ezartzearen bidez ondasunak banatu nahi dituzten neurriak, beraz, partehartzean eta askatasunean oinarritutako eredu batean daude txertaturik giza komunitateentzat. Aldi berean, neurri horiek eragina dute burujabetzaren eta askatasunaren aldeko ekimenetan; berotasunez, edukiz eta kolorez hornitzen dituzte ekimen horiek, zuzentasunaren bidetik abiatzen dituzte, eta duintasuna ematen diote komunitateari. Eduki horiek dira, hain zuzen ere, askatasun proiektua "ezaugarritzen" dutenak. Askatasunik gabeko zuzentasunak eta zuzentasunik gabeko askatasunak apurten egi-ten dute gure komunitatea.

# Dinamika berriaren lurralde esparrua.

Lehen esan dugunez, proposatzen dugun garapen ereduan gizarteko partaideak dira euren askapenaren dimentsio guztien protagonistak; horrekin jarraituz, ondasunak eta lana banatzeko dinamika berri horri dagozkion lurraldeaz eta komunitate-esparruaz hitz egiterakoan zenbait maila bereiz ditzakegu.

Lehenik, gure berreraikuntza nazionalaren esparrua aipatu behar dugu, hau da, Euskal Herri osoa (Hegoalde eta Iparralde, bakoitzak bere fase eta abiadura dituelarik). Bestela esanda, demokrazi eta askatasun esparru berrien alde daramagun borrokaren lurraldea: autogobernua- ren, demokrazia propioaren eta autodeterminazio eskubidearen

aldeko borrokaren eremua. Bigarrenik: mundu garatuko nazioetan aipatutako norabidean doazen neurriak (ondasunak banatzea, lana banatzea, metatze-sistema berria) lortzearen aldeko borrokan -zein bere ikuspuntutik- ari diren erakunde- ekiko koordinazioaren eta lankidetzaren esparrua.

Zentzu horretan zera hartu behar da kontutan: neurri horiek aplikatzen duen esparru ekonomiko- politikoa handiagotzen den heinean merkeagoa eta eraginkor- ragoa izango dela neurrien apli- kazioa. Halatan, politika hori Europa mailan ezartzeak asko erraztuko luke lanaldi-murrizke- taren eta soldata-kontentsazioa- ren aplikazioa, ez bailegoke bere

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

lehiakortasuna hobetzeko asmoz kontrako norabidean arituko litzatekeen herririk. Horregatik, dinamika berriaren lurralde-esparruaren hirugarren maila gure proiektu alternatibo europarrarena da. Proiektu horrek, oraingo eraikuntzarenak ez bezala, esparru politiko (demokrazia, herrien eskubideak, nazioarteko elkartasuna), sozial, ekologiko eta kulturalean oinarrituko luke bere ondorengo antolaketa ekonomikoa.

Laugarrenik: dinamika berriak lana eta ondasunak mundu mailan banatzera eramán behar gaitu, gaur egungo globalizazio-fasea kontutan hartuz eta Iparra-

Hegoa errealitatea jorratuz. Puntu hori erabakigarria da, eta ez justiziagatik soilik, zeren gütiz beharrekoa baita, behar eta eraginkortasun soziopolitikoaren ikuspuntutik, gure askapen proiektu propioarentzat ere. Zentzu horretan esparru abertzaletik aspalditik esan duguna gogoratu behar dugu, hots, oinarritzko gizarte errenta bat ezarri behar dela mundu mailan, errenta hori pertsonék berez duten eskubidea delako; beste neurri ekonomiko eta sozial batzuk oinarri horretatik arautu beharko liráteke nazioarteko mailan (politikaren eta kulturaren eremuan hartu beharreko erabakiekin uztarturik).

Ondasunen banaketa  
eta garapen eredia.



## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

Lehenago esan dugunez, garai-pen sozialak askatasunaren eremukoekin batera lortu behar dira; horrek esan nahi du herritarrek (langileek, eta, gure kasuan, Euskal Herriko herritarrek) partehartzaile eta protagonistak izan behar dutela euren behar eta nahiak aseko dituen eredu sozialaren antolaketan. Hori esanda, berriz, lana eta ondasunak banatzeko neurriei berez dagoen garapen ereduaren ardatz esanguratsu batzuk aipatuko ditugu.

Ardatz horiek ikusmolde berri batean txertatzen dira; beraren arabera, garapenaren esanahia gizartearen esfera ekonomiko, sozial, ekologiko, politiko, kultural eta linguistikoaren hazkunde egituratu eta orekatuarekin paretatzen da (frankismoaren garai-ko "garapena" ez bezala, berorrek proposatzen zuen hazkunde ekonomikoak gainerako esferak suntsitzera eta askatasuna debekatuzera baitzeraman).

### **Eredu neoliberalaren aurkako gako soziala**

Gure proposamenez hitz egiterakoan kontutan hartu behar dugu, hasteko, lana eta ondasunak banatzeko neurriak funtsezko gako sozial bat direla Euskal Herriarentzat, inperialismoaren, Nazio-Estatuen eta eredu neoliberalaren aurkako kontraeraso orokorrean. Zehazkiago esatearren, lanaren eta ondasunen banaketa lan-harremanen eredu berriaren proiektuan, garapen eredu berrian, autodeterminazio proiektu berrian eta gizarte proiektu berrian txertatu beharrean gaude.

### **Arazo ekologikoa**

Bigarrenik: lana eta ondasunak banatzera zuzendutako neurrien bidez aurre egin diezaiokegu arazo ekologikoari, edo, beste era batean esateko, neurri horien bidez indartzen den garapen motari esker ahalmena eskurat-

zen dute gizakiek euren bizi-bal-  
dintzak menperatzeko eta euren  
etorkizuna -etorkizuneko belau-  
naldiekiko elkartasunaren ikus-  
puntutik- antolatzeko. Zentzu  
horretan zera aipatu behar dugu:

- Lana eta ondasunak banatzeko beharraz hitz egitean ez diogula "enplegu betea" kontzeptuari ikuspegi produktibistek ematen dioten esanahi berdina ematen. Izan ere, gure kasuan enplegu betea lana banatzetik eta komunitate-lana merkatuaren logikatik at sustatzetik ondorioztatzen da, eta horri esker logika demokratiko bat erantsi ahal diogu sistemari, gizartearen interesak agintean dagoen talde txikiaren interesen gainetik jartzea ahalbidetzen duen sistema ekonomiko eta soziopolitiko bat defendatuz.


- Ekologiaren eremuari dagokionez, ingurugiroak pairatzen dituen katastrofeei eta planetako energi baliabideak eta lehen-gaiak agortzera garamatzan neurri gabeko ustiapenari aurre egi-

tera zuzendutako neurriak hart-  
zera behartuta gaude; gure bios-  
feraren defentsan bilatu behar  
dugu gizakion existentzia ahalbi-  
de dezaketen baldintza materia-  
lak berreskuratzeko ahalmena.

- Guri dagokigunez, ondasunak banatzearen ondorioz sortuko den egitura ekonomiko berriaz hitz egiterakoan funtsezko garrantzia eman behar diogu Euskal Herriko oinarritzko sektoreak berreskuratzeari; sektore horiek suntsiturik daude, hemen aplikatu den industrializazio-prozesu kapitalista basatiaren eraginez. Hori horrela izanik, sektore horiek berreskuratzeko eta lehengoratzeko ezinbestekoa izango da lurralde-antolaketa aldatzea, euskal ekosistemaren garapen demokratikoaren logikaren arabera.

- Alderdi ekologikoez ari garela-  
rik, gizateriaren aniztasun kulta-  
ralaren defentsari dagokionez,  
eredu berriak aukera eman  
behar digu geure nortasun

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.



nazionala berreskuratzeko, gure lurra zatitu duten Espainiar eta Frantziar Estatuaren inperialismoek hiltzeraino zapaldu baitute nortasun hori azken mendeotan. Horrek eskatzen duen garapen sozialak geure hizkuntza eta kultura propioak indartu behar ditu, gero eta areago, nazio eraikuntza sustatu, barneko elkartasuna indartu eta komunitatearen bote-rea handitzeaz batera.

Lanaren banaketa eta aipatutako metatze-dinamika funtsezkoak dira suntsipen ekologikoa geldiarazteko eta kontsumo-ere-

duaren orientazioa aldatzeko; horri esker berreskuratu egingo ditugu geure komunitatearen kolore eta dimentsio guztiak. Bide horren oinarrian Euskal Mugimendu Ekologistak diseinatutako eredia dago, zeinaren arabera lanaren banaketa oso baldintza sozial garrantzitsua baita gure ekosistema berreskuratzeko; bere asmoa kontsumo-zaletasuna-garapenzaletasuna bikoteari aurre egingo dion garapen demokratikoa sortzea da, "bakoitzari bere jakintzaren arabera eskatu, eta bakoitzari behar duena eman" leloak proposatzen duen gizarte eredia -merkantilismorik gabeko gizarte- kontzienteki eratzearen bidez.

### **Merkantilismorik gabeko gizarte**

Hirugarrenik: hasitako bidea sakontzerakoan beste erronka bati egin behar diogu aurre, hots, merkantilismoa ezabatzeari. Merkatuaren logika hausteko erabilera-balioa eta erabilgarri-

tasun sozialaren mundua garatu behar ditugu. Teknologia berriek aukera ederra eskain diezagukete norabide horretan jotzeko. Halatan:

- Kapitalaren balioa gehitzen duen produkzioak gero eta soldata gutxiago banatzen ditu, eta, horrenbestez, ekonomia beraren oinarria aldatzera behartzen gaitu; erabilera-balioen produkzioa oinarri berria izan dadin (langileen eskubide berriei buruz Garcia Salmones euskal idazleak egin duen proposamena errealitate horretan oinarritua da).
- Liberatutako lanaldian erabilera-balioa sortzen duten giza jarduerak gauzatzen dira (ondasun kolektiboak sortu eta komunitatearen alde diharduten zerbitzuzareak indartzen dira).
- Bizi-kalitateak gero eta lotura gutxiago du produkzio-mailarekin eta eroste-ahalmenarekin, eta gero eta lotura gehiago komunitate-ondasunekin (garraio kolektiboak, irakaskuntza eta osasun

sistemak, liburutegi publikoak, herriaren eskura jarritako datu-baseak, etab.) eta hirigintza, ekologia, kultura eta politikaren eremuekin.

## **Kultur iraultza**

Laugarrenik: "liberatutako aldia" kultur iraultza potentzial baten oinarri materiala da. Hori dela eta haxe adierazi behar dugu:

- Errenta unibertsalak eta lanaren banaketak osatzen duten dinamika berriak gainditi nahi du teknologia berriek eta langabeziak asialdian sortu duten zatiketa. Zatiketa horren arabera, ikus daitekeenez, lana duen pertsona ez da bizi, lan egiteko soilik bizi delako, eta lanik ez duenak ezin dezake bizirik iraun, aurrera ateratzeko beharko lituzkeen gutxienezko baliabideak ez dituelako.
- Hori horrela izanik, gogoan izan behar dugu lanaldiaren murrizketa langileen mugimenduaren "eskaera historiko nagu-

## 6. Lanaren banaketa eta gizarte soldata.

sietako" bat izan dela. Eskaera hori erabat lotuta dago bizi-kalitatearekin, eta, hortaz, estu lotuta gaur egungo bizimodu eta produkzio zein kontsumo ereduazalantzan jartzearekin.

- Lanaldiaren murrizketa horrek milaka aukera eskain ditzake aisialdia antolatzeko, kultur prozesuaren arabera (urte libre bat 8 urtetan behin, 4 orduko astea, urtero beste hilabete bat opor, etab.).

- Zentzu horretan azpimarratzen da noraino igoko lirakeen zoriona, kultura eta prestakuntza lanaldiaren murrizketa hori langile aktiboz osatutako eredu batean aplikatuko balitz. Horren bidez autorrealizazioaren ateak irekiko litzaizkieke guztiei.

- Etikari dagokionez, lanaren banaketan eta gizarte soldatan oinarritutako politikak "elkartasunaren" garapen soziala bultzatzen duela kontutan hartu behar dugu. Balio etiko horren garapena zenbait mailatan azaleratzen da:

- Datozen belaunaldien aldeko elkartasuna da, belaunaldi baten egoismoak hurrengoaren etorkizuna kolokan jartzea saihesten baitu.

- Hirugarren Munduko herrien aldeko elkartasuna, euren produkzio materialaren hazkundera ahalbidetzen baitu.

- Lanaldia murriztearen alde Lehen Munduan borrokatzen duten langileekiko elkartasuna: langileen abangoardia horrek eraso neoliberalaren logikatik askatu nahi ditu gainerako langileak, lan merkerik onar ez dezaten, eta, horren bidez, abangoardiaren ahalginak indargabe litzakeen dumping sozialik egin ez dezaten.

- Era horretan kultur iraultza garrantzitsu bat sor daiteke, aisialdiaren aukerak eta ahalmenak baloratzen dituena (prestakuntza, heziketa, euskalduntze-prozesua, partehartze sozio-politiko eta gizatarkuntza), "ondasunak edukitzearen gainetik pertsona izatea jartzen duena", gure bizimoduaren zentzua aldatzen duena eta gure esfera etikoa garatzen duena.